

2005EKO EKAINAREN 15EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko ekainaren 15ean, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Alkatearen eskariz Inazio Barandiaran Aldasoro zinegotzia bertaratu da baita ere.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko maiatzaren 11n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren, 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, ~~EHUN~~ ETA HAMAZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI euro eta LAUROGEITA BERDERATZI zentimo (117.548,99 €)koa, bere espedientean jasotzen dena, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 247 zbk.dun esped.: astean hiru egunetan, egunean 2 orduko zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %61ekoa izango da.

- 712 zbk.dun esped.: astean sei egunetan, egunean ordu beteko zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24a izango da.

- 611 zbk.dun esped.: interesatuak zerbitzua jasotzeko uko egin diola eta, zerbitzutik baja ematea 2005eko apirilaren 18ko datan.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 627 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 225,29 €tako dirulaguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %85a da.
- 490 zbk.dun esped.: ur berogailuaren konponketarako (iturginaren lana) 30,10 €tako dirulaguntza ematea; etxebizitzako uraren giltza nagusia lekuz aldatzeko 81,20 €tako dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 573 zbk.dun esped.: hotzgailua erosteko 379 €tako dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.